



Laburpena
Resumen

KUDEAKETA ETA PLANGINTZA TXOSTENA 2022/2023 INFORME Y PLAN DE GESTIÓN

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

www.ehu.eus/es/web/zientzia-teknologia-fakultatea

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	1
KALITATE POLITIKAREN BERRIKUSKETA.....	2
PROZESUEN MAPA.....	4
TITULU OFIZIALAK.....	4
PLAN ESTRATEGIKOAREN BETETZE-MAILA.....	5
PROZESUEN BERRIKUSKETA.....	10
EMAITZA NAGUSIAK.....	14
GRADUKO TITULUEN ADIERAZLEAK.....	14
MASTERREKO TITULUEN ADIERAZLEAK.....	16
SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK.....	17
EKINTZAK.....	17
2022/23 IKASTURTEAN EGINDAKO EKINTZA BATZUK.....	17
2023/24 IKASTURTEAN BURUTU NAHI DIREN EKINTZA BATZUK.....	17

AURKEZPENA

UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean 2022/23 ikasturtean zehar egin diren ekintzen berri ematen da txosten honetan. Zehazki, lortutako emaitzak azaldu eta hurrengo ikasturtean martxan jarriko den hobekuntza-plana nolakoa izango den argitzen da.

2022/23 ikasturtean 2021-2023 artean aplikatzekoa zen Plan Estrategikoaren luzapenean ekintza asko egin dira. Hain zuzen ere, betetze-maila % 77,82koa zen 2023ko uztailearen 28an; gainera, 10 ekintza estrategiko guztiz bete dira, eta beste bat (**HE.1.4.A4 Ikasle taldeak sortzea, sare sozialetan beren titulazioen inguruko informazioa zabaltzeko**) burutu gabe itxi behar izan da. Sare sozialak arrakastaz dinamizatzeko modu berri bat aurkitu denez, sare sozialetan tituluaren inguruko informazioa hedatzen duten ikasle-taldeak sortzeari utzi zaio. Bestalde, intereseko taldeekin dugun harremanarekin jarraituz, esan dezakegu: Ikastegian mugikortasun programaren bat egiteko asmoa izan lezaketean ikasleei zuzendutako ingelesezko web-orria 2022/23 ikasturtean erabat operatibo egon da eta baita Fakultateko langileentzako eta ikasleentzako berri den Intranet zerbitzua ere erabilgarri dago. Halaber, barne- eta kanpo-komunikazioan jarraitzen diren protokoloak jasotzen dituen Komunikazio Plan bat onartu da.

Ikastegiko prestakuntza-proiektuari dagokionez, graduak berrikusten dituzten lantaldeen eraketa funtsezkoa izan da, izan ere, haiek aztertuko dituzte graduak, eta hobekuntzak azterketa horren arabera proposatuko dira. Hala ere, egungo graduek batxilergoko ikasleen arreta pizten dute oraindik ere. Nahikoa da Fakultateko batez besteko onarpen nota begiratzeari hori baieztatuz (11.94 14tik). Horrez gain, Fakultatean sartu berri diren ikasleek bokazio handia dute, gehienak lehen edo bigarren aukerako ikasketetan matrikulatu baitira. Hori gutxi balitz bezala, gutxieneko onarpen nota 12tik gorakoa izan da 5 titulutan (Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitzean, Biokimika eta Biologia Molekularreko Graduan, Bioteknologiako Graduan, Fisikako Graduan eta Matematikako Graduan). Hizkuntzaren kasuan, 2022/23 ikasturtean matrikulatu berri diren ikasleen % 60k euskaraz hasi dituzte ikasketak. Ehuneko hori eta gradua hizkuntza horretan ikasi duten Ikastegiko ikasleen ehunekoak, antzekoak dira. 2022/23 ikasturtean Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eman ziren lehen aldiz Ikastegiko gradu guztietako derrigorrezko irakasgaiak. Edonola ere, jaitziera nabaritu da **8.1 Euskarra** prozeduraren adierazleetan, hortaz, joera horri adi egon beharko zaio.

Azken ikasturteetan graduren bat hasi duten ikasleen profila ona denez, errendimendu-tasak esperotakoak dira ikasketak motak nolakoak diren kontutan hartzen badugu eta ikasketak horiek egonkor mantentzen ari direnez, sendotu egin direla ondorioztatu dezakegu. Orobat, graduko ikasle askok mugikortasun-programaren batean parte hartzen dute ikasketak bukatu baino lehen (egresatuen ia % 25a), eta praktikak ere egiten dituzte enpresetan (egresatuen % 35,92a). Gainera, egresatuek lan-merkatuaren eskariei erantzuten diete eta enplegu-datuak onak dira, nahiz eta titulu batzuetan badago zer hobetu.

Fakultatean eskaintzen den graduondoko prestakuntzari dagokionez, hainbat plaza libreak geratzen dira master ofizialetan (behatutako beheranzko joera baieztatuz). Ekintza berriak burutuko ditugu ikasle kopuru altuagoa erakartzeko, egun egiten direnak osatuz. Nolanahi ere, oso emaitza onak lortu ditugu ikaskuntza-adierazleetan. Titulu batzuetan funtsezkoak ez diren aldaketak ere proposatu dira, ikasketak planak eguneratzeko asmotan.

Ikastegiko langileak prestakuntza proiektuan konprometitu daude, eta etengabe hobetzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute. Horrela, 200 pertsona baino gehiago konprometitu daude Fakultatea modu egokian zuzentzeko beharrezkoak diren batzorderen batean. Fakultateko Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (TEKAZEL) UPV/EHUk kudeaketa hobekuntzarako antolatutako hainbat ikastaroetan parte hartu dute. Bestetik, irakasle-ikertzaileen (IIParen) ikerlana azpimarragarria da (zuzentzen dituzten tesien, ISI argitalpenen eta ikerketa-proiektuen kopurua baino ez da begiratu behar). Gainera, 2023ko apirilean VIII. Ikerkuntza Jardunaldiak parte hartze handiarekin ospatu ziren lan hori guztia hedatzeko. IIPak Hezkuntza Berrikuntzarako Ekintzetan ere parte hartzen du (prestakuntza ikastaroak, berrikuntza proiektuak...), eta 2023ko ekainean esparru horretan

izandako bizipenak partekatzeko aukera izan zuen ZTF-FCTn ospatutako Irakaskuntza-Berrikuntzari buruzko I. Jardunaldian.

Azkenik, 2022/23 ikasturtean aurrerapauso handiak egin dira Ikastegiko azpiegiturekin erlacionatuta: atezaintza Sarrera nagusira (0. Solairura) eraman da, informatika-gela berri bat (AI-9) moldatu da, 2023/24 ikasturtean erabilgarri egongo dena eta AI-3 eta AI-Grande Salle-ko ikasgela informatikoetako ordenagailuak ordezkatu dira.

2023/24 ikasturteko erronkak honako hauek dira:

- Akreditazio instituzionala berritzea.
- Ikastegiko plan estrategiko berria zehazten lagunduko duen hausnarketa estrategikoa egitea (plan berriak bat egin beharko du UPV/EHUko planarekin).
- Gradu diagnostikoa osatzea.
- Graduondoko ikasketak egiten dituzten ikasle-kopurua handitzea.

KALITATE POLITIKAREN BERRIKUSKETA

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Dekanotza taldeak 2002ko uztailan Ikastegiaren kudeaketari buruz hausnartu zuen (une hartan EFQM eredu hartu zuen oinarritzat, eta ondoren, KAE eredu); geroztik, Zientzia eta Teknologia Fakultateak arlo guztietan (irakaskuntzan, ikerketan, ezagutzaren transferentzian eta kudeaketan) kalitate maila altuenak lortzeko konpromisoa hartu du. Era berean, 2005az geroztik, Zientzia eta Teknologia Fakultateak hainbat plan estrategiko izan ditu, eta guztiek bat egin dute UPV/EHUren plan estrategikoekin. Plan horiek ikastegiaren jardura lerroak finkatu dituzte, planetan zehazten baitira ardatz bakoitzaren helburu estrategikoak eta helburu horiek lortzeko ekintza estrategikoak.

Konpromiso hori Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari (KBBS) islatzen da. Sistema horrek hainbat prozesu eta prozedura integratzen ditu ikastegia kudeatzeko oinarria eraginkortasuna izan dadin, betiere bikaintasuna eta etengabeko hobekuntza ardatz izanik. Helburu hori kontuan hartuz, sistemaren jardura-arlo guztiak aldi-aldi berrikusten dira.

Dekanotza taldeak, batez ere Ikastegiko Kalitate Batzordearen, Gradu Ikasketen Batzordeen, Masterreko Batzorde Akademikoen eta KBBS prozedurak kudeatzen dituzten arduradunen laguntzarekin, kalitate politikaren hedapena bultzatzeko ardura du, baita horren helburuak lortzeko jarduerak planifikatu eta ezartzeko ere. Horiek horrela, lortutako emaitzen eta aurrerapenen berri ematen die urtero Ikastegiko Batzarrari eta intereseko taldeei. Gainera, politika hori berrikusten du noizbehinka, eta beharrezkoa izanez gero, eguneraketak proposatzen dizkio Kalitate Batzordeari. Batzordeak, politika birformulatu ondoren, Ikastegiko Batzarrari aurkezten dio onar dezan. Era berean, politika hori garatzean, intereseko taldeen parte-hartzea sustatzen da (talde horiek Kalitate Batzordean eta Ikastegiko Batzarrean daude ordezkaturik). Gainera, modu sistematikoan jasotzen du egindako kudeaketaren gogobetetze-maila.

Zientzia eta Teknologia Fakultateak kalitate kulturaren bidez hurrengo lortu nahi dituzten enplegatzaileek eta gizarteak graduatuen gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak aintzatestea. Gainera, Fakultateak bertan lan egiten duten ikertaldeak babesten ditu. Taldeok arrakastaz erantzuten diete gizartearen erronkei, eta zientziak eta teknologiak aurrera egiteko bide dira, zein bere espezialitatean. Horrela, bada, intereseko taldeen beharrak eta itxaropenak asetzen ahalegintzen da, eta konpromisoa hartzen du horretarako eskura dituen giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomiko guztiak erabiltzeko.

Premisa horietan oinarrituta, Zientzia eta Teknologia Fakultateak bere kalitate politika markatuko duten honako helburu hauek zehaztu ditu:

- **Prestakuntza-eskaintza:** prestakuntza-eskaintza eleanitza, bikaina eta erakargarria sustatzea eta eskaintzea, zientziaren garapenarekin, enplegatzaileen behar eta itxaropenekin eta, oro har, gizartearekin bat datorrena.


- **Irakaskuntzaren kalitatea:** irakaskuntzaren kalitatea etengabe hobetzea, horretarako Europako Unibertsitate Eremura egokitzen den prestakuntza-, berrikuntza- eta irakaskuntza-gaitasunak garatuz.
- **Ikerketa:** Ikastegiko ikertaldearen arteko harremana bultzatzea, emaitzak hobetzeko.
- **Berrikuntza:** irakaskuntza eta ikerketa berritzeko jardueren garapena sustatzea, Fakultateari ospea emateko inguruan, estatuan eta nazioartean.
- **Etengabeko hobekuntza:** Ikastegiaren kudeaketa hobetzea bermatuko duen barne-ebaluazio eta jarraipen prozesua bultzatzea.

Ondoko taulan helburu horien betetze-maila, prozesuak eta arduradunak nola neurtuko diren ikusi daiteke:

Helburua	Baliabidea	Lotutako prozesuak	Arduradunak
Prestakuntza- eskaintza	Onarpen notaren batez bestekoa graduatan Okupazioa graduatan Okupazioa masterretan Enplegu-tasa	1.3 Titulazioen plangintza eta jarraipena	Dekanoa
		2. Gradua	Irakaskuntza Plangintzako dekanordea
		3. Graduondokoa	Graduondoko, Giza Baliabideetako eta Ekonomiako dekanordea
Irakaskuntzaren kalitatea	Prestakuntza ikastaroetako parte-hartzaileen kopurua DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IIP%	5. Giza baliabideak	Graduondoko, Giza Baliabideetako eta Ekonomiako dekanordea
Ikerketa	ISI argitalpenen ratioa IIP bakoitzeko Ikerketa proiektuen ratioa IIP bakoitzeko	4. Ikerketa	Graduondoko, Giza Baliabideetako eta Ekonomiako dekanordea
Berrikuntza	Hezkuntza berrikuntzako jardueretan parte hartu dutenen kopurua Hezkuntza berrikuntzako proiektuetan parte hartzen duen IIP kopurua Argitalpenen batez besteko eragina	5. Giza baliabideak	Graduondoko, Giza Baliabideetako eta Ekonomiako dekanordea
Etengabeko hobekuntza	Aurreikusitako ekintzen eta amaitutakoen arteko ratioa UKPT	1 Plangintza	Dekanoa
		10. Ebaluazioa, berrikuspena eta hobekuntza	Kalitate eta Berrikuntzako dekanordea

Kalitate Politika eta Helburu horren baliozkotasunaren inguruan hausnartu da, eta baita haren betetze-mailaren inguruan ere. Azkenean, baliozkoa dela eta Ikastegiko ildo estrategikoekin bat egiten duela ondorioztatuta da. Halaber, betetze-maila egokia du, harekin lotutako adierazleen balioak finkatutako balio-tartean barnean baitaude.

PROZESUEN MAPA



TITULU OFIZIALAK

GRADUAK

Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza (FIE)
 Biologiako Gradua (B)
 Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua (BKBM)
 Bioteknologiako Gradua (BT)
 Fisikako Gradua (FIS)
 Geologiako Gradua (GEO)
 Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (IE)
 Ingeniaritza Kimikoko Gradua (IK)
 Kimikako Gradua (KIM)
 Matematikako Gradua (MAT)

GRADUONDOKOAK

Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Erasmus Mundus Masterra (EMECT+)
 Itsas Ingurumena eta Baliabideak Erasmus Mundus Masterra (EMMER)
 Mikrouhinetako Elektronika eta Optika Berritzaileak Erasmus Mundus Masterra (EMMIMEO)
 Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Unibertsitate Masterra (MBF)
 Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Unibertsitate Arteko Masterra (MBM)
 Ingeniaritza Kimikoa Unibertsitate Arteko Masterra (MIQ)
 Ingurugiroaren Agrobiologia Unibertsitate Arteko Masterra (MAA)
 Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Unibertsitate Masterra (MCTA)
 Kimika Sintetiko eta Industrial Unibertsitate Arteko Masterra (MQS)
 Material Berriak Unibertsitate Arteko Masterra (MNM)
 Modelizazioa eta Ikerkuntza Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa Unibertsitate Arteko Masterra (MM)
 Paisaiaren Kudeaketa. Ondarea, Lurraldea eta Hiria Unibertsitate Masterra (MGP)
 Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Unibertsitate Masterra (MCTC)

PLAN ESTRATEGIKOAREN BETETZE-MAILA

Fakultateko Batzordeak 2021-2023 aldirako Plan Estrategikoa luzatzea onartu zuen 2021eko uztailean. Luzapen horretan helburu estrategiko berriak eta zegozkien ekintzak gehitu ziren, baina ekintza estrategiko berri horiek lehendik zeuden helburu estrategikoetan integratuz. Hori horrela, Plan Estrategikoaren 2022/23 ikasturtean egindako aurrerapenez jabetzeko, helburu estrategiko bakoitzean 2017-2020 Plan Estrategikoan (**beltzez**) amaitu ezin izan ziren eta 2021-2023 aldiko luzapenean gehitu ziren (**urdinez**) ekintza berrien garapena ageri da. Orobat, 2017-2020 aldiko Plan Estrategikoaren ekintza estrategikoetan adierazita zeunden eta dagoeneko itxi diren helburu estrategikoak, izartxo (*) batez adierazi dira.

1. Ardatza. Irakaskuntza

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.1.1. Ikasleen prestakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea	2017/18	%53
	2018/19	%73
	2019/20	%77
	2020/21	%80*
	2021/22	%33,33
	2022/23	%65
HE.1.2. Ikasleen nazioartekotzea sustatzea	2017/18	%65
	2018/19	%92,5
	2019/20	%96,25
	2020/21	%97,5
	2021/22	%100*
	2022/23	%100*
HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea	2017/18	%60
	2018/19	%80
	2019/20	%90
	2020/21	%93,3
	2021/22	%100*
	2022/23	%100*
HE.1.4. Ikastegiko formakuntza eskaintza laguntzea eta hedatzea	2017/18	%75
	2018/19	%92,5
	2019/20	%95
	2020/21	%97,5
	2021/22	%100*
	2022/23	%16,66
2022/23	%66,66*	

2. Ardatza. Ikerketa

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutzak hobetzea	2017/18	%0
	2018/19	%0
	2019/20	%30
	2020/21	%90
	2021/22	%100*
HE.2.2. Ikerketa-taldeen arteko harremana laguntzea	2017/18	%50
	2018/19	%75
	2019/20	%75
	2020/21	%82,5
	2021/22	%100*

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.2.3. Ikerketa-taldeak laguntzea	2017/18	%76,67
	2018/19	%86,67
	2019/20	%90
	2020/21	%93,33
	2021/22	%93,33
	2022/23	%100*
	2021/22	%40
	2022/23	%70

3. Ardatza. Pertsonak

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.3.1. Ikastegiko langile eta ikasleei egindako harrera eta aintzatespena hobetzea	2017/18	%33,33
	2018/19	%91,67
	2019/20	%100*
HE.3.2. AZP/IIParen parte-hartzea sustatzea Fakultateko ekintzetan eta proiektuetan	2017/18	%87,5
	2018/19	%100*
HE.3.3. AZP/IIParen garapen profesionala hobetzeko tresna berrien inguruko prestakuntza sustatzea	2017/18	%35
	2018/19	%65
	2019/20	%90
	2020/21	%100*
	2021/22	%75
HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea	2022/23	%90
	2017/18	%52
	2018/19	%70
	2019/20	%89
	2020/21	%96
	2021/22	%100*
2021/22	%40	
2022/23	%93,33	


4. Ardatza. Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzukizun Soziala

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE. 4.1. Hezkuntza-berrikuntza bilatzen duten proiektuak babestea IIParen parte-hartzea sustatuz	2017/18	%0
	2018/19	%37,5
	2019/20	%37,5
	2020/21	%50
	2021/22	%50*
HE.4.2. <i>Benchmarking</i> a sustatzea beste ikastegi batzuekin	2017/18	%50
	2018/19	%70
	2019/20	%75
	2020/21	%75
	2021/22	%90
HE.4.3. Aurrerapenak egitea kudeaketa aurreratuko sistema inplementatzeko prozesuan	2022/23	%100*
	2017/18	%21,67
	2018/19	%40
	2019/20	%60
	2020/21	%68,33
2021/22	%71,66*	

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.4.4. Erantzukizun Sozialen ekintzak sustatzea	2017/18	%38,33
	2018/19	%48,33
	2019/20	%53,33
	2020/21	%53,33
	2021/22	%60
	2022/23	%63,33
HE.4.5. Dibulgazio zientifikoa sustatzea gizartean	2017/18	%57,5
	2018/19	%67,5
	2019/20	%75
	2020/21	%77,5
	2021/22	%87,5
	2022/23	%100*
HE.4.6. Hobekuntzak egitea eraikinean	2021/22	%40
	2022/23	%50
HE.4.7. Barne- zein kanpo-komunikazioa sustatzea	2021/22	%16,67
	2022/23	%83,33

2017-20ko Plan Estrategikoa betetzea


■ 2017/18 ■ 2018/19 ■ 2019/20 ■ 2020/21 ■ 2021/22 ■ 2022/23



1. grafikoa: 2017-2020 Plan Estrategikoaren helburu estrategikoen betetze-maila, ardatz estrategikoen arabera multzokatuta

Plan Estrategikoaren 2021-2023rako luzapena betetzea

■ 2021/22 ■ 2022/23



2. grafikoa: 2020-2023 Plan Estrategikoaren luzapeneko helburu estrategikoen betetze-maila, ardatz estrategikoen arabera multzokatuta

Oharra: Plan Estrategikoaren betetze-maila ardatzen arabera kalkulatzeko, honako hauek hartu dira kontuan: batetik, helburuek 2017-2020 Plan Estrategikoaren ekintzetan izan duten aurrerapena (ikasturteetako ardatz bakoitzak hasierako Plan Estrategiko bat du, eta 1. grafikoko plan horietan proposatutako helburuen batez besteko aritmetikoa jasotzen du), eta bestetik, Plan Estrategikoa 2021-2023 urteen artean luzatzeak ekintza berrietan eragin duen aurrerapena (helburu estrategikoak proposatu dira ikasturteetako ardatz bakoitzean ezarritako Plan Estrategikoetan, eta 2. grafikoa helburu horien batez besteko aritmetikoa erakusten du).

ONDORIOAK

2017-2020 Plan Estrategikoan jasotzen diren 1., 2. eta 3. ardatzen helburuak itxita daude: 1. ardatzaren betetze-maila % 95ekoa da, eta 2. eta 3. ardatzena % 100ekoa. 4. ardatzari dagokionez,

2022/23 ikasturtean osatu gabe geratu den ekintza bakarra (**HE. 4.4** helburuarekin lotua) lantzen jarraituko da. Hain zuzen ere, **HE. 4.2** eta **HE. 4.5** helburuek %100eko betetze-maila dute, 2022/23 ikasturtean zehar haiekin lotutako ekintzak burutu baititugu. Gainera, 2022/23 ikasturtean 2021-2023ko Plan Estrategikoaren luzapenean gehitutako ekintzak osatu ditugu. Horietako 10ek %100eko betetze-maila dute, eta beste bat hasi gabe itxi da, helburua beste modu batera landu daitekeelako.

2022/23 ikasturteko Plan Estrategikoari dagokionez, honako hau nabarmendu behar da:

1. ARDATZA: **1. Ardatza. Irakaskuntzaren** barruan, 2021-2023 urteen arteko Plan Estrategikoan 9 ekintza erantsi ziren, 1. Ardatzeko 4 helburu estrategikoen artean banatu zirenak. 9 ekintza horien artean, 6k %100eko betetze-maila dute. Gainerako 3ak **HE 1.1** helburuan kokatzen dira, baina egoera desberdina dute: 2 ez dira amaitu oraindik, eta hirugarrena, **HE 1.4**, bete gabe itxi da, helburua betetzeko beste bide batzuk aurkitu baitira. Zehazki, 2022/23 ikasturtean honako zeregin hauetan zentratu gara:

- Enpresen eta Zentro Teknologikoen Aurkezpenerako Jardunaldiak birdiseinatzea.
- Ingeleseko gradu eta masterren irakaskuntza-eskaintza aztertzea.
- Web-orria ingelesez diseinatzea.
- Graduetako egutegia eta ordutegia aztertzea.
- Fakultateko web-orrian graduondoko prestakuntza-eskaintzaren inguruko informazio gehigarria jartzea.
- Bigarren Hezkuntzako ikastegietako orientatzaileentzat eskuorriak sortzea eta zabaltzea.

Horrez gain, 2022/23 ikasturtean egungo eskaintza akademikoaren inguruan jardun dugu, eta prestakuntza osagarriaren eskaintza zabaltzea pentsatu da. Edonola ere, 2023/24 ikasturtean gai horiek lantzen jarraituko dugu.

2. ARDATZA: **2. Ardatza. Iherketa** ardatzaren kasuan, betetze-maila % 100ekoa izan da **HE. 2.3.A1** ekintzari dagokionez (helburu hori hasierako plan estrategikoan ageri zen). Ardatz horrekin lotutako planaren luzapenean ekintza bakarra gehitu da, eta horretan ere aurrera egitea lortu da (betetze-maila % 70ekoa estimatuz). Modu horretan, hiru helburu estrategikotatik bik (**HE. 2.1** eta **HE. 2.2**) % 100eko betetze-maila dute 2021/22 ikasturtean proposatutako ekintza guztietan. Hirugarren helburuaren (**HE. 2.3-ren**), 2022/23 ikasturtean lantzen ari garen helburuaren kasuan, 2023/24 ikasturtean betetzea espero den ekintza bat bukatzea falta da: ikertzeko guneak izateko beharrari buruzko memoria egitea, hain zuzen ere.

3. ARDATZA: **3. Ardatza. Pertsonak** ardatzean programatutako ekintza estrategikoetan aurrerapen handiak egin dira. Plan Estrategikoaren luzapenean gehitu ziren 5 ekintzetatik, hiruk % 100eko betetze-maila dute, eta beste biek % 80koa (2023/24 ikasturtean zehar bukatzea espero da). Ikasleentzako zerbitzuak hobetzeko sortu diren hiru ekintzetatik bi (armairuentzako tokia eta talde-lanak burutzeko tokia handitzea, eta, ordenagailu eramangarriak erostea ikasleei mailegatzeko) behar bezala bete dira.

4. ARDATZA: 2017-2020 aldiaren ebaluazioari dagokionez, **4. ardatza. Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzukizun Soziala** ardatzak izan zuen betetze-mailarik baxuena. Hori dela eta, 2021/22 eta 2022/23 ikasturteetan zehaztu ziren, baina bukatu gabe geratu ziren ekintza estrategikoak lantzen jarraitu dugu. Modu horretan, **HE.4.2** eta **HE.4.5** helburu estrategikoetako ekintza guztiak betetzea lortu da %100 betetze mailarekin. Gainera, eraikuntza hobetzeko eta barne- eta kanpo-komunikazioa sustatzeko ahaleginak egiten jarraitu dugu.

IKUSPEGIAREN ILDOEN AGINTE-TAULA, LORTUTAKO HELBURU ETA BALIO ERREALAK ZEHAZTUTA

Ikuspegiaren Ildoak	Adierazleak	22-23 Helburua	22-23 Balioa
Ikasleek ikastegia bikaintzat hartzea, kalitateagatik eta irakaskuntza-eskaintza zabalagatik	Eskainitako plazetatik zenbat bete diren (%tan)	%100	%99,47
	Ikasleek irakaskuntzarekiko duten gogobetetze-maila (UPV/EHUko HELAZ zerbitzuak egindako inkestaren bidez neurtua)	3,9 /5	4,25/5
	Batxilergotik datozen ikasle berrien batez besteko nota	11,3 /14	11,94/14
	Mugikortasun akademikoaren hitzarmen-kopurua	125	148
	Hezkuntzarako Lankidetzaren Hitzarmen kopurua (HLH)	200	387
Komunitate zientifikoak aintzat hartzea, ikerketa-maila altuagatik eta aniztasunagatik	Deialdi lehiakorretako ikerketa proiektuen kopurua	50	78
	Defendaturiko tesi-kopurua urteko	75	104
Unibertsitate-komunitateak bere kudeaketa aurreratuagatik eta etengabeko hobekuntza espirituagatik erreferentzia-fakultatetzat hartzea	Beste ikastegi batzuekin hitzartutako lankidetzakopurua (bisitak, esperientzia trukeak, hitzaldietara gonbita...)	15	14
	Hezkuntza berrikuntzako programetan (UIPRE, HBP...) parte hartzen duten IIP kopurua	100	237
Enplegatzaileek arlo zientifiko eta teknologikoan ematen duen prestakuntzagatik erreferentzia-ikastegitzat hartzea	Enpresetan eskainitako praktika-kopurua	250	390
	Ikastegiarekin lankidetzaren hitzarmenak dituzten entitateen kopurua	900	956
	Enpresen eta erakundeen gogobetetze-maila ikastegiko egresatuen profilarekiko (LHLak edo ikastegiarekin batera Gradu Amaierako Lanak zuzentzen dituzte enpresei egindako inkestaren bidez neurtua)	4,4/5	4,81/5

Ikuspegiaren Ildoak	Adierazleak	22-23 Helburua	22-23 Balioa
Gizarteak unibertsitate-ikastegi prestigiotsutzat hartzea	Agerraldi positiboaren kopurua komunikabideetan	200	863
	Batzilergotik datozen ikasle berrietatik 11 baino nota altuagoa dutenen ehunekoa	%65	%81.31
	Fakultateak gizarte-hedakuntzarako zenbat jardueretan parte hartzen duen (kulturari, berdintasunari, jasangarritasunari, ingurumenari, konpromiso sozialari eta abarri buruzko proiektuak)	80	68

PROZESUEN BERRIKUSKETA

1. PROZESUA. PLANGINTZA

Aurrerapen handiak egin dira 2022/23 ikasturtean indarrean dagoen Plan Estrategikoaren luzapenean zehaztutako ekintza estrategikoetan. Hain zuzen ere, ekintza berrien betetze-maila % 77,82koa da. Horrez gain, Plan Estrategikoaren luzapeneko 11 ekintza bete dira, eta guztien betetze-maila % 100ekoa da, batena izan ezik. Horrez gain, antolatutako gainerako ekintzak lantzen jarraitu dugu. Zehazki, 2022/23 ikasturtean hasitako ekintza estrategikoetako bat **HE.1.1.A.5** da, hau da, **HE.1.1.A.5 Egungo eskaintza akademikoaren egokitasuna aztertzea**. Ekintza hori **HE.1.1** helburu estrategikoan (**HE.1.1. Ikasleen prestakuntza sendotzeko eta emaitza akademikoak hobetu** helburu estrategikoan) kokatzen da. Helburu hori betetzeko, graduak berrikusteko lantaldeak osatu ditugu, eta dagoeneko hasi dira emaitzen diagnostikoa egiten. 2023/24 ikasturtean azterketa horretan aurreratzea espero dugu, bai eta hobetzeko eta eguneratzeko neurriak proposatzea ere. UNIBASQek 822/2021 Errege Dekretuarekin bat datozen Kalitate Zigiluak (Duala eta Nazioartekoa) zehaztu ondoren, Kimikako Graduan prestakuntza duala eskaintzea bideragarria den ala ez eztabaidatuko da. Ikastegiko tituluek Nazioartekotzearen zigilua lor dezaten irizpideek izan behar duten betetze-maila ere aztertuko da.

Bestalde, unibertsitatean sartu berri diren ikasleen eta egresatuen profilak berrikusi dira 1.3 azpiprozesuaren arabera, eta bi profilak tituluen memorietan zehaztutakoarekin bat datoz. Gainera, 2022/23 ikasturtean lortutako enplegu-tasek egresatuen profilaren egokitzapena berresten dute. Balio horiek onak izan dira Ikastegiko titulu guztietan, nahiz eta batzuk hobetu daitezkeen ere. Egresatuak lanean errazago hasteko, Enpresak Aurkezteko Jardunaldiak, modu arrakastatsuan, berrantolatu dira, eta enpresa eta ikasle askok hartu dute parte formatu berrian. Horrez gain, Gela Teknologikoaren eguna antolatu da: bi urtean behin ospatuko da, eta enpresek eta haiekin lan egin duten ikasleek hartuko dute parte. Lanean hasten laguntzeko jarduera horiez gain, zeharkako gaitasunak lantzeko jarduera osagarriak ere prestatuko dira, ikasleek asko balioesten baitituzte.

Ikasleei eskainitako orientazio akademikoa indartzeko, ikasle aholkulariek Berdinen arteko Tutoretza Planaren barruan ematen dituzten hitzaldietara unibertsitatean sartu berri diren ikasleak joan daitezkeen motibatu beharko da (bertaratzen den ikasle-kopurua oso aldakorra delako). Bestalde, Fakultateko Batzarrak Batxilergoko 2. mailako hautazko ikasgaien haztapan koefizienteak aldatu behar izan ditu graduako tituluen onarpen-fasean, 243/2022 Errege Dekretua indarrean sartu baita.

Lizentziaturak desagertu zirenetik, 2023/24 ikasturtean lehen aldiz jarriko da martxan **1.3.5 Tituluaren desagertzea** prozedura, izan ere, Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzak ez du **Paisaiaren Kudeaketa. Ondarea, Lurraldea eta**

Hiria Masterra eskaintzeko baimenik eman., izandako matrikula baxuagatik. Jadanik idatzi eta argitaratu da desagerpen plana, prozedurek agintzen duten moduan.

Azkenik, maiatzean Ikastegiko KBBS prozedurak barne-ebaluazioa izan du Akreditazio Instituzionalaren berritze arren. Berritze hori 2023/24 ikasturtean egingo da, eta Fakultatea aukeratua izan da UPV/EHUren pilotu gisa. Bestalde, 2023/24 ikasturtean gainditu nahi den beste erronka bat hausnarketa estrategiko berri bat egitea da. Zeregin horrekin lotuta dauden barne- eta kanpo-taldeek hurrengo aldi estrategikoan Fakultateak jarraituko dituen ildo estrategikoak zehazten lagunduko dute, eta ildo berriek UPV/EHUrekin bat egitea nahi da.

2. PROZESUA. GRADUA

Lehenengo aldiz, 2022/23 ikasturtean Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan irakatsi dira graduako tituluetakoko derrigorrezko ikasgai guztiak. Gainera, graduetakoko ikasketa planetan ageri diren ikasgaien irakaskuntza gidak eguneratu dira 2022/23 ikasturterako. Ikastegiak eta Gradu Ikasketen Batzordeek proposatu dituzten hobekuntza-ekintza ugari ere jarri dira martxan 2022/23 ikasturtean. Hori nahikoa ez dela, hobetu beharreko alor berriak aurkitu ditugu, eta horri esker, ekintza ugari finkatu ahal izan dira tituluetan. Ekintza horiek 2022/23 ikasturtean zehar landu dira, eta 2023/24 ikasturtean martxan jarriko dira. Adibidez:

1. Funtsezkoak ez diren hiru aldaketa egin dira:
 - a. Bi hautazko irakasgai ordezkatu dira titulu guztietan.
 - b. Ikasgai bat hizkuntza berri batean irakasten da.
 - c. Matematikako Graduoko plaza-kopurua handitu da.
2. 2023/24 ikasturteko eskola-egutegiaren antolaketa hobetu da: batetik, antolaketa berria gehiago egokitzen da ikasleen beharretara, eta bestetik, bigarren lauhileko bukaeraren eta maiatza-ekaineko azterketa garaiaren artean egun batzuk gehitu dira ikasleek ikasteko denbora izan dezaten.

Hiru titulutan izan ezik (Geologian, Bioteknologian eta Kimikan), graduako tituluetakoko plaza guztiak bete dira, beraz, Ikastegiko graduak eskari handia dutela ondorioztatu daiteke. Fakultatera sartu diren ikasleek sarrera-profil onak dituzte, eta baita bokazio handia ere. Orobat, Bioteknologian eta Kimikan (plaza hutsak dituzten titulazioetakoko bi), zenbait ikasleek matrikula bertan behera utzi dute onarpen epea itxi ondoren, eta horren ondorioz, zenbait plaza hutsik geratu dira. Halaber, beharrezkoa da Geologia ezagutarazteko ekintzak egiten jarraitzea, batxilergoko ikasleek gutxien ezagutzen duten titulua baita. Ikasle berriak erakartzeari dagokienez, erakartze-ekintzen kopurua eta haien norainokoa oso positiboak izan dira. Ekintza horien artean, 2022/23 ikasturtean orientazio-liburuxka argitaratu da lehen aldiz webgunean, eta harrera zabala izan du. Liburuxka hori argitaratzea Plan Estrategikoan jasotako ekintzetako bat zen.

Ikasle berriek sarbide-profil ona dute eta gehienak bokaziozkoak dira. Izan ere, batez besteko onarpen nota oso altua da Fakultate osoan (11,94 14tik, eta 10 titulutatik 7k 12 baino batez besteko nota altuagoa dute). Errendimendu-tasak Ikastegira sartzen diren ikasleen profil ona islatzen du: tasa egonkor mantentzen ari da, eta horrek egiaztatzen du Zientzia eta Teknologia Fakultateko graduak sendotu egin direla eta denboran zehar homogeneousatasuna mantendu dutela. ofizialetan, behatutako beheranzko joera baieztatuz. Hala ere, **incoming** ikasleen kopurua handitu egin den arren aurreko ikasturteekin alderatuta, oraindik baxua da, hortaz, ikasle atzerritarrak erakartzeko estrategiak garatu behar dira. Praktikak egiten dituzten ikasleen kopurua ere nabarmen handitu da, baita enpresek eskaintzen dituzten praktika-kopurua ere. Hori nahikoa ez dela, Fakultateko ikasleekin oso pozik daudela esan dute. Hori guztiari esker, bete gabeko praktika-kopurua ere txikitu egin da, ikasleek praktikekiko duten interesa handitu egin baita. Nolanahi ere, praktikak eskaintzen dituzten enpresa- eta erakunde-kopurua txikitu egin da pixka bat, beraz, enpresa kolaboratzaileei **mailing** egingo zaie praktika gehiago eskaini ditzaten.

3. PROZESUA. GRADUONDOKOA

Ekintza ugari egin dira Ikastegian eskaintzen diren graduondoko ikasketetan interesatuta dauden ikasleak erakartzeko. Nolanahi ere, aurreko ikasturteetan baino plaza gutxiago bete dira master ofizialetan. Matrikulazioen beherakada hori nabarmenagoa da titulu batzuetan. Hain zuzen ere, azkeneko ikasturteetan oso ikasle gutxi matrikulatu direnez

Paisaiaren Kudeaketa. Ondarea, Lurraldea eta Hiria Masterrean, Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzak titulua ikasteko aukera kendu du 2023/24 ikasturtean.

Beste titulazio batzuk antzeko egoeran egon ez daitezzen eskaintzaren hedapena indartuko da Fakultateak eskaintzen dituen graduondoko ikasketak iragartzeko Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzak egindako sustapen-jardunaldiez gain, beste jardunaldi batzuk antolatuko dira, eta haietan Ikastegira atxikitako masterrak aurkeztuko dira. Gainera, 2023/24 ikasturtetik aurretiko izen-ematearen eta matrikulazioaren egutegi berria jarriko da martxan, graduondoko tituluetan matrikulatzen den ikasle-kopurua handitzeko asmoz. Masterreko batzorde akademikoek ere ekintza eta aldaketa ugari ezarri eta proposatu dituzte ikasketa planentzat, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua errazteko eta tituluak erakargarriagoak izan daitezzen.

Azkenik, masterreko tituluetakiko ikaskuntza-adierazleak aztertuz gero, bilakaera oso positiboa dela ikusi daiteke. Edonola ere, titulu batzuetan lortutako emaitzak hobetu egin daitezke oraindik. Bestalde, ikasturte honetan egin diren kanpo praktiken kopurua iazkoaren antzekoa da, hortaz, enpresaren edo erakunderen batekin lan egin duen ikasle-kopurua egonkor mantendu da.

4. PROZESUA. IKERKETA

Fakultateak ikertzaile eta hezitzaile maila ona mantentzen du. Horren adierazlea da defendatu diren doktorego-tesi kopurua, izan ere nabarmen igo baita (2022/23 ikasturtean 104 izan ziren, eta 2021/22 ikasturtean 74); horrez gain, IIParen ISI argitalpen-ratioa ere igo da (2022/23 ikasturtean 1,04koa izan zen). Hala ere, egoera ekonomikoak eragina du ikerketa-aurrekontuetan eta proiektuekin lotutako adierazleetan.

5. PROZESUA. GIZA BALIABIDEAK

Beharrezkoa da IIParen leheneratze-tasak mantentzea Ikastegiko irakasle-ikertzaileen egonkortasuna lortzearen. 2019-20-21-22 EPEa ebatzi ondoren, Ikastegira datozen TKZEL langile berriak prestatu beharko ditugu haien zereginak burutu ditzaten.

Fakultateko langileek (bai TKZELek, bai IIPek) formakuntza-ikastaroetan parte hartzen dute aktiboki. Gainera, Ikastegiko irakasleek hezkuntza berritzeko interes handia dute. Hain zuzen ere, 2023ko ekainean ZTF-FCTren irakaskuntza-berrikuntzari buruzko I. Jardunaldia antolatu zen, eta parte-hartzaile kopurua (73 pertsona) altua izan zen. Halaber, 84 lagun hezkuntza berrikuntzarekin lotutako proiektu ugari garatzen ari dira, eta dagoeneko irakaskuntza berrikuntzaren inguruko 40 argitalpen egin dira.

Bestalde, langileak konprometituta daude Ikastegiko prestakuntza proiektuan (200 pertsona baino gehiago Ikastegiko batzorderen bateko kide dira).

Azkenik, 2023ko otsailean Dekanotza-taldeko bi kide ordezkatu dira (administrazio-burua eta irakaskuntzaren plangintzako dekanordea).

6. PROZESUA. EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIOA

Ikastegiak modu eraginkorrean kudeatzen du aurrekontua, eta hein handi batean irakaskuntza-jarduerak bultzatzeko eta ikasleen aldeko hobekuntzak egiteko erabiltzen du.

6.2 Administrazioa prozedura ebaluatzeko inkestaren erantzun-kopurua handitzearen, zenbait ekintza egin dira. Besteak beste, inkesta ingelesera itzuli da elkartrukeko ikasleek zerbitzua ebaluatzeko aukera izan dezaten. Bestetik, paperezko inkesta kendu eta onlinekoa bultzatu da (QR pegatinak erabiltzaileentzako arreta zerbitzuen mahaietan, erabiltzaileen artean banatutako txartel fisikoak, Zerbitzutik bidaltzen diren mezu elektronikoen behealdean jarritako QR kodea...). Inkesta arreta jaso bezain laster egiteak emaitza hobetu du, erabiltzaileak gustura gelditzen baitira jasotako arretarekin eta informazioarekin.

Gainera, arreta ordutegian egindako aldaketek erabiltzaileen gogobetetzea handitu beharko luke, izan ere, astean ordu gehiago egongo da irekita (asteleheneetik asteazkenera 13:00etatik 15:00etara, hau da, goizeko ordutegia duten ikasleak ateratzen direnean eta arratsaldeko ordutegia dutenak sartzen direnean).

Akademia Gestio Zerbitzuaren web-orriko informazioa lortzeko erraztasunak du gogobetetze-maila baxuena. Alde ahul hori indartzeko, web-orriko atal horren edukiei buruz hausnartuko dugu, eta beharrezko aldaketak egiteko eskatuko zaio web-orriaren kudeatzaileari.

7. PROZESUA. BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK

Ikastegiaren azpiegiturei dagokienez, hobekuntza-ekintza ugari egin dira, aurretik egindakoen antzekoak. Aurrekontu-falta dela eta, ezin izan dira proposatutako ekintza batzuk burutu, baina finantzaketa egokia izan bezain laster egingo dira.

Bestalde, 2022/23 ikasturtean azken urteetan behatutako hondakin-kopuruaren gutxipena baieztatu da. Ingurumena hobetzeko ekintzak ere ondo finkatuta daude, baina gertakari- eta istripu-kopuruak gora egin du (2021/22 ikasturtean 2 izan ziren, eta 2022/23 ikasturtean 11). Hala ere, zenbaki horiek oso txikiak dira Ikastegian egiten diren guztiekin alderatuz. Edonola ere, 2023/24 ikasturterako prebentzio-ekintzak sustatu eta indartu nahi dira istripu gutxiago izateko.

8. PROZESUA. EUSKARA ETA ELEANIZTASUNA

8.1 Euskara prozedurako adierazleak ezarritako balio-tartearen barnean mantentzen diren arren, behera egin dutela ikusi daiteke. Hori dela eta, beherakada horren jatorria aztertuko da 2023/24 ikasturtean zehar.

Ingelesaren erabilera sendotu egin da Fakultateko esparru akademikoan, eta hizkuntza hori menperatzen duen IIP kopurua gora doa. Nolanahi ere, beharrezkoa da ingelesezko kultura- eta dibulgazio-ekintzak sustatzea.

9. PROZESUA. KOMUNIKAZIOA ETA PROIEKZIO SOZIALA

Intranet berritzea eta Fakultatearen ingelesezko web-orria martxan jartzea bukatu dugu 2022/23 ikasturtean, eta erabilgarri daude biak. Bestalde, 2023ko ekainean informazioa zabaltzeko protokoloa azaltzen duen Komunikazio Plan bat onartu zen. Gainera, Marketin eta Merkataritza Zuzendaritza Masterreko ikasle bati marketin plan bat sortzeko eskatu zaio, eta 2023/24 ikasturtean horren inguruan hausnarketa egingo da.

Bestetik, **9.2 Gizartearehiko interakzioa** prozedura berrikusi da, eta ikusi da adierazleek ez dutela prozeduraren oraingo jarduera egoki neurtzen. Beraz, prozeduraren adierazle-multzoa berrikusiko da, eta beharrezkoak direnak gehitu eta zaharkituta daudenak kenduko dira.

9.3 Fakultateko Sare Soziala prozedurari dagokionez, sare sozialeko kideen eta Ikastegiko ikasle-elkarteen kopurua berdin mantendu da, baina elkarte horietan dauden ikasle-kopurua handitu egin da.

Azkenik, Fakultatearen inguruko zalantzei eta kontuei (kexei, gomendioei, erreklamazioei...) erantzuteko zenbait kanal daude (postontzi birtuala, idazkaritza edo dekanotza), eta ahalik eta modu pertsonalizatuenean erantzuten zaie beti.


10. PROZESUA. EBALUAZIOA, BERRIKUSKETA ETA HOBEKUNTZA

Gogobetetzea neurtzea oinarritzkoa da erabiltzaileen eskakizunak hobetuko dituzten ekintzak zehazteko. Ikasleen gogobetetzea neurtzeko erabiltzen diren inkesten ereduak hobetu dira, eta horretarako ikasleen gomendioak hartu dira kontuan. Aurten 2021/22 ikasturtean baino erantzun gehiago jaso diren arren, erantzun-kopurua handitzeko eta 2019/20 ikasturtean jaso ziren erantzun-kopuru bera jasotzeko ekintzak egin behar dira. Bestalde, irakasleen irakaskuntzaren inguruko iritzi-inkesten gutun-azalak modu berri batean jasotzen hasi gara, eta horri esker, gorabehera gutxiago izan dira. Ikastegiko irakaskuntzaren kalitatea dela eta, DOCENTIAZ programan positiboki ebaluatutako IIParen ehunekoa % 60tik gorakoa da.


Etengabe hobetearren, 2022/23 ikasturtean zehar 12 hobekuntza-talde izan ditugu. Alde batetik, Ikastegian eskaintzen diren graduak berrikusteko lantaldeak osatu dira (2023ko uztailean hasi ziren lan egiten). Gainera, lantzen ari ziren proiektu guztiak bukatu dituzte hiru hobekuntza-lantaldek, eta aurrerapen handiak egin dituzte 2022/23 ikasturtean: alde batetik, Intranet martxan jartzea lortu da, eta eGelapi bat ere diseinatu da Sailen zuzendarientzat. Bestetik, eskola-egutegian egun batzuk gehitzea proposatu da ikasleek ikasteko denbora izan dezaten maiatza-ekaineko azterketak baino lehen.

GRADUKO TITULUEN ADIERAZLEAK


Sartzeko gutxieneko nota




Graduen okupazioa




Egokitzapen-tasa




Errendimendu-tasa




Ikasketen uzte-tasa



Ikasketak amaitu dituztenen kopurua




Enplegu-tasa




MASTERREKO TITULUEN ADIERAZLEAK


Masterren okupazioa



Errendimendu-tasa



Ikasketak amaitu dituztenen kopurua



SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK

ADIERAZLEA	22/23	21/22	20/21	19/20	18/19
2.6j Mugikortasun programetan parte hartu duten egresatuen ratioa	24,79	23,89	17,97	23,39	19,66
2.7a Curriculumeko edo curriculumetik kanpoko praktikak egiten ari diren ikasleen kopurua	357	268	341	244	271
3.2c Erasmus Mundus ez diren masterretako batez besteko betetzea	57	66	74,7	75,31	-
4.1d IIParen ISI argitarapenen ratioa	1,04	1,18	1,21	1,14	1,15
4.1i Defendatutako Tesien kopurua	104	73	82	70	80
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile doktoeen %a	85,37	86,6	86,17	88,02	85,95
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile iraunkorren %a	69,3	70,57	72,82	74,57	72,38
6.1b Irakaskuntza jardueri eskainitako aurrekontu arruntaren %a	46,62	43,79	49,95	77,03	62,83
6.1e Ikerketa taldeei laguntzeko eskainitako ikastegiko urteko aurrekontuaren %a	3,3	4,72	16,02	10,2	26,59
7.2d Ikastegian garatu eta zabaldu diren ingurumen hobekuntzarako ekintzen kopurua	5	4	4	5	6
8.1c Euskaraz egindako GrALen %a	33,26	39,55	37,52	43,88	37,59
8.2h Ingelesez irakasten diren irakasgaien kopurua	35	34	34	35	34
8.2i EFC irakasgaien kopurua	77	74	71	76	61
9.2c Kanpoko erakunde eta instituzioekin hitzarmen eta kolaborazio kopurua	14	107	15	13	40
DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IIParen %a	61,19	56,54	53,05	48,81	43,04

ERINTZAK

2022/23 IKASTURTEAN EGINDAKO EKINTZA BATZUK

1. KBBS prozedurei barne-ebaluazioa egitea Akreditazio Instituzionala berritu aurretik.
2. Enpresak Aurkezteko Jardunaldia birdiseinatzea.
3. Graduako derrigorrezko irakasgai guztiak euskaraz irakastea.
4. Egokitzapenak masterreko titulazioetan sartzeko plazen kopuruan.
5. Ikerketa-taldeen ikerketa zabaltzea formatu berriak erabiliz.
6. Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko I. Jardunaldia antolatzea.
7. Hobekuntzak Administrazio Akademikoaren Zerbitzuaren erabiltzailearen gogobetetze-inkestan.
8. Atezaintza- eta erreprografia-zerbitzuak lekuz aldatzea.
9. Fakultateko Intraneta berrikustea eta eguneratzea.
10. Fakultatearen web-orria ingelesez argitaratzea.
11. Komunikazio Plan bat egitea.
12. eGelapi bat sortzea Sailen zuzendarien eta Dekanotzaren arteko kudeaketa eta harremana errazteko.
13. Ikastegiko arautegia UPV/EHUko ikastegien oinarrizko arautegi moldatura egokitzea.
14. Gradu Ikasketen Batzordeak (GIBk) eta Masterreko Batzorde Akademikoak (MBAk) hobekuntza-proposamenak egitea.

2023/24 IKASTURTEAN BURUTU NAHI DIREN EKINTZA BATZUK

1. Akreditazio Instituzionala berritzea.
2. Hausnarketa estrategiko berri bat egitea.
3. Graduak berrikustea.

4. Gradu batzuetan lehenengo lauhilekoan irakasten diren ingelesezko irakasgaiez osatutako 30 kreditu-blokeak sortzea.
5. Ikasteko egunak gehitzea 30. astearen eta maiatza-ekaineko azterketen artean, eta aparteko egun horiek islatzen dituen eskola-egutegia antolatzea.
6. Masterreko tituluetan ikasle berriak erakartzeko ekintzak egitea.
7. Zentroan egindako ikerketa-lanari buruzko datuak biltzen dituen liburuxka aurkeztea.
8. Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIHen) inguruko jardunaldiak antolatzea.
9. Matrikula aldatzeko eta handitzeko eskaera egiteko eta ebazpena emateko egungo protokoloaren aztertzea.
10. Akademia Gestio Zerbitzuaren arreta ordutegia zabaltzea.
11. Informatika-gela 9a izango den ikasgela mugitu denez, informatikako ikasgelen eserlekukopurua handitzea.
12. GrALa beste hizkuntza batzuekin egiteko aukera aztertzea.
13. KBBS prozeduren adierazleak berrikustea.